

# ARABAKO GURUTZE GORRIAK 32.000 KILO ELIKAGAI BANATU DIZKIE 1.965 PERTSONA ZAURGARRIRI

- **Banaketa FEAD 2021en lehen fasea da, egoera ahulenean dauden pertsoneri elikatzen laguntzeko programaren barruan.**
- **Erositako elikagaiak oinarritzkoak, askotarikoak, elikagarriak, ez oso galkorrak eta garraiatzeko eta biltegitzeko errazak dira.**
- **FEAD programaz gain, Gurutze Gorriak oinarritzko beharrak asetzeko beste programa eta proiektu batzuk ere baditu, elikadura-produktuetarako ez ezik, baita premia handiko beste produktu batzuetarako ere.**

**Vitoria-Gasteiz, 2021eko ekainaren 10a, osteguna.** Gurutze Gorriak 32.000 kilo elikagai banatuko dizkie hilabete honetan probintziako 1.965 pertsona zaurgarriri. Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura Ministerioak, Nekazaritza Bermerako Espainiako Funtsaren (FEGA) bidez, abian jarri duen Pertsona behartsueneri Elikagaiak Laguntzeko 2021 Programaren lehen fasea da.

Azken urtean, COVID-19 pandemiak eragindako inpaktu ekonomikoa dela eta, onuradunen kopurua % 5,5 handitu da Araban.

Programa horren % 85 Pertsona behartsuenentzako Europako Laguntza Funtsak (FEAD) finantzatzen du, eta % 15 estatuko aurrekontuak.

Banatu beharreko elikagaiak oinarritzkoak, askotarikoak, elikagarriak, ez oso galkorrak, garraiatzeko eta biltegitzeko errazak dira. Besteak beste, arrosa, babarrun egosiak, UHT esne osoa, atuna kontserban, elikadura-pasta, tomate frijitua, gailetak, barazki mazedonia, kakao disolbagarria eta fruta eta oilasko tarritoak.

Gurutze Gorriak elikagaiak banatzen ditu arabako zortzi erakunde kideren bidez.

## **Elikagaiak eta oinarritzko ondasunak eskuratzea bermatzeko hainbat ekimen**

FEAD Elikadura Laguntzarako Programa garrantzitsu horrez gain, Gurutze Gorriak baditu oinarritzko beharrak asetzeko beste programa eta proiektu batzuk, elikadura-produktuekin

## Gurutze Gorria

ez ezik, premia handiko beste produktu batzuekin ere, higiene-produktuekin adibidez. Pertsona ahulenei oinarritzko beharrak asetzeko ematen zaizkien laguntzak, hala nola elikadura, "Elikagaien oinarritzko saskiak" emanez eta "diru-txartelak" emanez gauzatzen dira. Horrela, hainbat merkataritza-establezimendutan trukatu ahal izango dituzte, eta familiak elikadura-produktu ugari eskuratu ahal izango dituzte dieta osasuntsuagoa eta orekatuagoa lortzeko (elikagai freskoak, sasoikoak). Gainera, ingurumen-inpaktua murriztea eta elikaduran eraginkortasun handiagoa izatea lortzen da.

Esku-hartze horien zati handi bat enpresa askoren dohaintzei esker lortzen da; izan ere, enpresa horiek elkartasunez laguntzen dute elikaduraren oinarritzko premia arintzen, eta funtsezkoa da, halaber, premia garrantzitsu horri erantzuteko lankidetzak-hitzarmenak sinatu dituzten erakunde eta administrazioekin lankidetzan eta koordinazioan aritzea. Programa eta proiektuetan egindako lan guztia ehunka boluntariok egindako ezinbesteko lanari esker gauzatzen da. Boluntarioak modu solidarioan eta konprometituan ere inplikatzeko dira pertsona eta familia ahulak elikatzeko oinarritzko premia horri aurre egiteko.

**Euskadin**, Gurutze Gorriak 332.919 banatuko ditu 21.605 pertsonaren beharrak asetzeko, erakundearen 14 tokiko batzarren eta banaketarekin lotutako 29 erakunderen bidez.

---

**Álvaro García Serrano**  
**Marka eta Komunikazio autonomikoaren arduraduna**

| +34 678 401 443  
| comunicacionalava@cruzroja.es  
| **Euskadi**. Portal de Castilla, 52. 01007 Vitoria-Gasteiz.

Cure idazkerak gure pentsamoldea islatzen du. Gurutze Gorria hizkuntza inklusiboaren alde.